



MAGIC: THE GATHERING TCG TXAPELKETA

1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

- 1.1. Mangamore 2024ko Magic: The Gathering TCG txapelketa aurrez aurre urriaren 12an, larunbata, egingo da, 16:30etatik aurrera, Zelaieta Zentroko 3. solairuko gela 4. Gelan.

Jarraian, gelarako sarbidearen argazki bat ematen da.



- 1.2. Txapelketaren formatua Commander (DOB) izango da.
- 1.3. Parte hartzeko gutxienerako adina 13 urtekoa da.
- 1.4. Gehienez 32 partaide egongo dira.
- 1.5. Denboraren arabera, 3-5 txanda egingo dira. Txanda bakoitzak 60 eta 90 minutu artean iraungo du.
- 1.6. Parte-hartzaile guztiek uneoro bete beharko dituzte antolatzaileen jarraibideak eta arauak.

2. TXAPELKETARI BURUZ

- 2.1. Txapelketak arau hauek bete beharko ditu:

1. Mazoa eraikitzea:

- Jokalari bakoitzak 100 kartako piloa izan behar du, komandantea barne.

- Komandanteak mazoaren kolore-identitatearen legendario-a izan behar du.
- Commander formatuan debekatuta ez dauden kartak baino ez dira onartuko.
- Hainbat Deck erabil daitezke (txapelketa beste deck batekin joka daiteke, halakorik izanez gero).

2. Erregistroa:

- Magic Companion aplikazioa izatea (doakoa).
- Komandante bakar bat baimentzen da (Deck bat baino gehiago jokatzeko aukera) jokalaria bakoitzeko (Partnerrekin komandanteak jokatzaren kasuetan izan ezik).
- Txapelketaren erregistroa momentuan egingo da, eta txapelketa pribatu bat sortuko da app baten erabilerarekin. Txapelketaren hasieran emango dugun kode baten bidez egingo da.

3. Parekatzea:

- Partidak ausaz parekatuko dira hasierako txandetan.
- Txanda bakoitzaren ondoren, jokalaria euren errekoraren arabera parekatuko dira.

4. Puntuazio-sistema:

- Garaipen bakoitzeko 3 puntu irabazten ditu.
- Berdinketa bakoitzeko puntu 1 irabazi du.
- Ez dago porrot bidezko punturik.

5. Berdinketak:

- Puntuetan berdinketa gertatuz gero, honako hauek hartuko dira kontuan:
 1. Bizitza-ezberdintasuna.
 2. Garaipenak guztira.
 3. Berdindutako beste batzuen aurka irabazitako partidak.

2.2. Hauek dira parte hartu ahal izateko behar diren materialak:

- Jokalari bakoitzaren commander mazoak.
- Bizi-kontagailuak (dadoak edo aplikazioak erabil daitezke).
- Jokatzeko taula edo mahai egokiak.

3. IZEN-EMATEARI BURUZ

3.1. Txapelketaren hasieran, izena aurrez aurre emango da, Zelaieta Zentroko 3. solairuko 4. gelan.

4. SARIEI BURUZ

4.1. Sariak hurrengoak izango dira:

1. saria: domina + opariak
2. saria: domina + opariak
3. saria: opariak

Opari horiek merchandisinga, mangak, liburuak, Artist Alley-ko artisten sorkuntzak, elikadura-produktuak eta abar.

Gainera, hiru sari horiez gain, txapelketaren antolatzaileek, dauden jokalaria kopuruaren arabera, produktuak saritu edo zozketatu ahal izango dituzte. Adibidez: jokatzeko kartak, sustapen-kartak edo Magic-en produktuak.

4.2. Sariak txapelketa amaitzean banatuko dira.

5. ANTOLAKUNTZARI BURUZ

- 5.1. Oinarri hauetan araututa egon ez arren, txapelketaren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango dute antolatzaileek.
- 5.2. Antolatzaileek errespetuzkoa eta dibertigarria den partaidetza-testuingurua sustatu nahi du.
- 5.3. Txapelketan izena emateko emandako datu pertsonalak konfidentziasunez erabiliko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 03/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Datuak txapelketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako.
- 5.4. Publizitaterako, txapelketako parte-hartzaileen irudiak (argazkiak, bideoak, etab.) hainbat komunikabidetan erabili ahal izango dira: telebista-programetan, Interneten, egunkarietan, aldizkarietan, etab. Irudi horiek ez dira inola ere helburu komertzialetarako erabiliko. Ez da ordainsari ekonomikorik egongo sustapen-neurri horiengatik.
- 5.5. Txapelketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar. Arau bat edo batzuk ez betetzeak lehiaketatik kanporatzea ekar dezake

HARREMANETARAKO BIDEA:

Zalantzarik izanez gero, ekintzak@mangamore.net helbidera mezu elektronikoa bat bidali dezakezu.

